

ITI Antzerkiaren Nazioarteko Institutua

Arte Eszenikoen Mundu Erakundea

2017ko Antzerkiaren Nazioarteko Eguneko mezua

Isabelle Huppert, Frantzia

Bueno, bada, hemen gaude berriro. Berriz ere udaberrian elkartuta, inaugurazio bilera egin eta 55 urte geroago, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Egun bat besterik ez, 24 ordu; hori da antzerkiaren oroitzapena egiteari munduan eskaintzen zaiona. Eta hemen gaude, Parisen, erakartzen dituen antzerki taldeei dagokienez, munduko lehen hirian, antzertia gurtzeko.

Paris munduko hiri bat da, egokia planetako antzerki tradizioak hartzeko ospakizun egun batean. Hemendik, Frantziako hiriburuan, geure burua Japoniaraino eraman dezakegu Noh eta Bunraku antzerkia esperimendatzeko; Ierro bat trazatu ahal dugu pentsatzeko askotariko moduetara eta adierazpideetara, besteak beste, Pekingo Operara eta Kathakalira; agertokiak aukera ematen digu esekita egoteko Grezia eta Eskandinavia artean, Eskilori eta Ibseni, Sofoklesi eta Strindbergi geure burua babesten uzten diegun bitartean; Britainia Handia eta Italia artean joan-etorria egiteko aukera ematen digu Sarah Kane eta Pirandelloren oihartzuna dugun bitartean. 24 orduko tarte honetan, geure burua Frantziatik Errusiara eramanda ikus dezakegu, Racine eta Moliérerengandik Txekhovengana; are gehiago, Ozeano Atlantikoa igaro dezakegu, Kaliforniako campus batean lan egiteko inspirazioaren bulkada bati jarraituta, hango ikasle gazteren bati lagunduta bidea urratzen antzerkiaren arloan.

Egiantan, antzerkiaren bizitza hain da interes handikoa, ezen aurre egiten baitio denborari eta espazioari. Lan garaikideenak aurreko mendeetan erdietsitako lorpenez elikatzen dira, eta, are gehiago, errepertorio klasikoek modernotasuna eta bizitasuna hartzen dute, berriro antzetzten diren bakoitzean. Antzerkia bere errautsetatik berpizten da berriz, soil-soilik aurreko egiunez biluztuta, formatu berri eta modernoek bidez azaltzeko. Hala eusten dio bizirik bere buruari.

Horrenbestez, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ez da, bistan denez, egunen segida jarraitu batean galtzen utz dezakegun egun arrunt bat. Munduko antzerki kanonaren berealdiko maiestatearen bidez denbora-espazio kontinuum handi batean sartzeko bidea ematen digun eguna da. Ideia hori kontzeptualizatu ahal izateko, utziezadazue frantziar antzerkigile bat aipatzen, bikaina eta diskretua era berean, Jean Tardieu. Espazioan pentsatzean, Tardieuk esaten du zentzuzko dela ondoko galdera egitea: “Zein da bataren eta bestearen arteko bide luzeena?”... Denboraren kasuan, iradokitzen du “segundo hamarretan neurtzeko ‘betikotasun’ hitza esateko behar den denbora”... Espazio-denborari dagokionez, berriz, ondokoa esaten du: “Lo gelditu aurretik, finkatu zure burua espazioko bi tokitan eta kalkulatu, amets batean, batetik bestera joateko behar den denbora”. *Amets batean* hitzak dira nire buruan finkatuta gelditu direnak beti. Tardieu eta Bob Wilson batera gertatu izan balira bezala da. Era berean, Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren denbora singularitasuna laburtu dezakegu Samuel Becketten hitz batzuk aipatuta, bere zirt edo zarteko estiloan, bere pertsonaia Winnieri esanarazi zizkionak: “O, zeinen egun ederra izango zen”. Mezu honetan pentsatzean –idazteko hautatu izanagatik harro sentiarazten nauena–, eszena horietako amets guztiak ekarri nituen gogora. Hori dela-eta, esan ahal izango litzateke ez naizela bakarrik etorri Unesco etxearen areto honetara. Izan ere, bizitza osoan antzertu izan dudana pertsonaietako bakoitza gaur nirekin baitago hemen; itxura batean

oihala jaisten denean barreiatzen diren rolak, baina nire barnean lurpeko bizitza mota bat eratu dutenak, jarraian etorriko diren rolei laguntzeko edo haiek suntsitzeko zain; Fedra, Araminte, Orlando, Hedda Gabbler, Medea, Merteuil, Blanche DuBois... Halaber, egun, ikusle gisa maitatu eta txalotu ditudan pertsonaia guztiak nire osagarri dira. Eta horregatik mundu osokoa naiz. Greziarra, afrikarra, siriarra, veneziarra, errusiarra, brasildarra, pertsiarra, erromatarra, japoniarra, newyorktarra, marseillarra, filipinarra, argentinarra, norvegiarra, korearra, alemaniarra, austriarra, ingelesa naiz, munduko benetako herritarra, nire barnean bizi diren pertsonen nahasketaren kariaz. Izan ere, hemen, agertokian eta antzerkian, aurkitzen dugu egiazko globalizazioa.

1964ko Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Laurence Olivierrek adierazi zuen, haren aldeko borrokan mende bat baino gehiago igaro eta gero, Antzoki Nazionala sortu berri zutela Londresen, berak berehala nazioarteko antzoki bihurtu nahi zuena, gutxienez erreperitorioari zegokionez. Ongi asko zekien Shakespeare mundu osokoa zela.

Mezu hau idazteko aurretik egin ditudan azterlanetan, 1962ko Antzerkiaren Nazioarteko Eguneko inaugurazio mezua Jean Cocteauren gomendio utzi zela jakiteak poztu egin ninduen. Hautagai egokia zen, 'Tour du monde en 80 jours - Mon premier voyage' liburuaren egilea baitzen. Horrek eraman ninduen pentsatzera nik munduari itzulia egin diodala beste modu batean. 80 ikuskizunetan edo 80 filmetan egin dut. Eta horretan barnean hartu ditut filmak, nik ez baitut bereizketarik egiten antzezlan bat antzeztearen eta film bat antzeztearen artean. Eta esaten dudak bakoitzean harritu egiten nau, baina egia da, hala da, ez dut inolako desberdintasunik ikusten bi gauza horien artean.

Eta hemen hitz egiten dudanean ez naiz ni neu, ez naiz aktorea, antzerkiak existitu ahal izateko baliatzen duen pertsona ugarietako bat baino ez naiz, eta nire betebeharra da irekia izatea alde horretatik, edo bestela esanda, *guk* ez dugu egiten antzerkia existitzea. Aitzitik, antzerkiari esker existitzen gara gu. Antzerkia oso indartsua da. Denari aurre egiten dio, gerrei, zentsurari, urritasun eta lazeriari.

Nahikoa da esatea "agertokia denbora zehaztugabe bateko eszena biluzi bat" dela: behar duen guztia aktore bat da, gizona edo emakumea. Zer egin behar dute? Zer esan behar dute? Hitz egingo dute? Ikus-entzuleak zain daude, eta jakingo dute, ikus-entzulerik gabe ez baitago antzerkirik. Ez ahaztu hori inoiz. Pertsona bakar bat publikoa da. Baina espero dezagun ez egotea toki gehiegi hutsik! Ionescoren produkzioek aretoak betetzen dituzte beti eta berak balio artistiko hori xalotasun eta edertasun handiarekin adierazten du, bere lanetako baten amaieran, andre zahar baten ahoan hitz hauek jarrita: "Bai, bai, ospe betean hiltzea. Hil gaitezen legenda bihurtzeko... gutxienez gure kalea izango dugu...".

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna duela 55 urte egiten da. 55 urte hauetan, mezua egitera gonbidatu duten zortzigarren emakumea naiz, honi 'mezu' esan badakioke, jakina. Nire aurretikoei (ai, nola inposatzen den giza espeziearen genero maskulinoa!) irudimenaren antzerkiaz, askatasunaz eta originaltasunaz hitz egin zuten edertasuna, kultura aniztasuna, gogora ekartzeko eta ezin eztabaidatuzko galderak egiteko. 2013an, duela lau urte besterik ez, Dario Fok hau esan zuen: "Krisiaren konponbide bakarra gure kontrako sorgin ehiza handiaren itxaropenean dago: modu horretan, aktoreen diaspora berri bat azaleratuko da, eta haiek, zalantzarik gabe, jakingo dute errepresio horretarik ezin imajinatuzko onurak eratortzen adierazteko modu berri bat aurkitzean". *Ezin imajinatuzko onurak* – formula ederra dirudi, zeinahi gogoetabide politikotan sartzeko modukoa, ez zaizue iruditzen?...

Parisen nagoenez, lehendakaritzarako hauteskundeetarako aste gutxi gelditzen diren honetan, gu gobernatzea irrikatzen dutela diruditen haiei iradoki nahi diet antzerkiak

berekin ekartzen dituen *ezin imajinatuzko onurez* ohartzeko. Baina, era berean, hau nabarmendu nahi dut: sorgin ehizarik ez!

Antzerkiak, nire ustez, *bestea* irudikatzen du, elkarrizketa da, eta gorroto eza da. 'Pertsonen arteko adiskidetasuna'. Bueno, ez dakit oso ongi horrek zer esan nahi duen, baina komunitatean sinesten dut, ikus-entzuleen eta aktoreen arteko adiskidantzan, antzerkiak lotzen dituen pertsonen arteko batasun iraunkorren: itzultzaileak, hezitzaileak, jantzien diseinatzaileak, artista eszenikoak, praktikatzaileak eta publikoa. Antzerkiak babestu egiten gaitu, abaroa ematen digu... Nire ustez, antzerkiak maite gaitu... guk bera maite dugun adina...

Gogoan dut eszena-zuzendari zaharkitu bat (harentzat lan egin nuen), oihala altxatu aurretik, gauero, hau oihukatzen zuena, ahots irmo eta ozenarekin: 'Egin bidea antzerkiari!' Eta horiek izango dira nire azken hitzak gaur gauean.

Mila esker.

Ingeleserako itzulpena: Malory Domecyn eta Tom Johnson.